

Zubiri eta Barrenetxeak lehenengo garaipena nahi dute 'Erremonari'n

Kronika - Erredakzioa 2021-04-19 00:00



Sagardoaren Txapelketaren aurkezpena. Argazkia: Maialen Andrés.

Gaur, 22:15etatik aurrera, jokatu da Sagardoaren Txapelketaren bigarren jardunaldia.

Gaur jokatu dute Aritz Zubiri goizuetarrak eta Endika Barrenetxea hernaniarrak, Sagardoaren Txapelketako bigarren partidua. Juanenearekin jokatu du Zubirik, Larre Gain sagardotegiaren izenean, Gurutzetako Goikoetxea V eta Aizpuru Illren kontra; eta Etxarri izango du lagun hernaniarrak, Oialume Zarren ordezkari gisa, Gaztañagako Segurola eta Larrañagaren aurrean. Gaur gauean izango da hori, 22:15etan hasita Galarretan; eta zuzenean emango du jaialdia ETB1ek, Erremontari saioaren barruan.

Bai Zubirik eta bai Barrenetxeak, galdu egin zuten txapelketako aurreneko partidua, joan den astean. Hernaniarrak eta Etxarrik partiduan agindu zuten eta estu hartu zituzten Urriza eta Zaldua (Bereziartua sagardotegia), baina 30-29 nagusitu ziren kontrarioak, azkenean. Zubirik eta Juaneneak, berriz, 30-26 galdu zuten, Ansa II eta Labaka (Setien) bikotearen kontra.

Segurola-Larrañaga, bikote sendoa eta orekatua

Bigarren aukera izango dute gaur, Zubirik eta Barrenetxeak, estreinako garaipena lortzeko. Eta aurrean izango dituzte, oraindik txapelketari ekin ez dioten bi bikoteak. Estreinakoaren zalantzak uxatu izana, alde izango dute biek; baina bere maila onena eman beharko dute, ligaxkaren sailkapenean aurreneko postuetan kokatzeko.

URUMEA



Gainera gaurko arerioak ez dira nolanahikoak, batez ere Segurola eta Larrañaga. Gaztañaga ordezkatzeko duen bikotea txapelketako orekatuena eta gogorrenetakoa da.

Kirola Goizueta Hernani

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikalari gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez Kronikalari!



Ikusienak



[Gaurtik ostiralera arte zabalik, udaleku irekietan zein kirol udalekuetan izena emateko epea](#)

Kronika - Erredakzioa
api 26, 00:00 [Hernani](#)

[Garaipena lortu zuen atzo Hernanik El Rion, eta finalerdietarako sailkatu da](#)

Kronika - Erredakzioa
api 26, 00:00 [Hernani](#)

[Juul literatur hauteskundeetan aukeratua, Alai Zubimendiren lana](#)

Kronika - Erredakzioa
api 26, 00:00 [Hernani](#)

[Ezustekoa Zinkoenean, gaur goizean](#)

Kronika - Erredakzioa
api 24 [Hernani](#)

[Aho zabalik, larunbateko ikuskizunean](#)

Kronika - Erredakzioa
api 26, 00:00 [Astigarraga](#)

['Lurralde erotiko berriak esploratzeko ataria' tailerra, emakumeon etxean](#)

Kronika - Erredakzioa
api 23 [Astigarraga](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkarte](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika@kronika.eus



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[ANBOTO](#)

[ATARIA](#)

[BALEIKE](#)

[AIURRI](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GOIENA](#)

[GUAIXE](#)

[HIRUKA](#)

[KARKARA](#)

[MAXIXATZEN](#)

[PLAENTXIA](#)

[ALEA](#)

[28 KANALA](#)

[ANTXETA](#)

[BARREN](#)

[ERLO TELEBISTA](#)

[GEURIA](#)

[GOIERRI TELEBISTA](#)

[KRONIKA](#)

[MAILOPE](#)

[NOAUA](#)

[DEUSTUALDEA PREST](#)

[TXINTXARRI](#)

[URIOLA](#)

[UZTARRIA](#)

[AMEZTI](#)

[OIZMENDI TELEBISTA](#)

[Gurean](#)

[Plazanbazan](#)

[Itap](#)

[Tokikom](#)

[publizitatea](#)